

Eusko-katalanismo politiko eta kulturala: Sorrera eta garapena (1876-1919)

JOSEBA AGIRREAZKUENAGA (UPV-EHU)

RESUMEN
LABURPENA
ABSTRACT

H.Knörr representa la metáfora y realidad del vasco-catalanismo cultural. En el siglo XIX se establecieron unos hitos de solidaridad cultural que iniciaban la apertura hacia la articulación de convergencias políticas. Las iniciativas de J. Mañe i Flaquer, (1876), de V. Almirall (1882) así como la participación en los juegos florales son ejemplo de solidaridad cultural con una perspectiva de reivindicación política. En el siglo XX es preciso reseñar la convergencia de ideas y de personalidades en favor de los proyectos de autonomía política y la consolidación de una nueva cultura política, un nuevo discurso social en torno al significado del autonomismo político.

H. Knörren bizitza zientifikoa eta kulturala, eusko-katalanismoaren metafora eta errealtatea bihurtu ohi da. XIX mendean barrena Catalunya eta Euskal Herriaren arteko kultur kidesetasun eta elkartasunak agiri ziren. Adibidez: J.Mañe i Flaquer (1876), 1882 V. Almirall eta ondoren lore jokoetan. XX mendean hasieran, eusko-katalanismoaren bidez, autonomia politikoaren oinarri juridiko eta politikoak finkatu ziren. Kultura politiko berri baten abiapuntu sendotu zen.

H.Knörr represents both the metaphor and the reality of Basque-Catalan cultural cooperation. In the XIX century landmarks of cultural solidarity were established, marking an aperture towards the articulation of political convergences. The initiatives of J. Mañe i Flaquer (1876) and V. Almirall (1882), as well as joint participation in literary competitions, are examples of cultural solidarity with a perspective of making political claims. In the XX century it is necessary to describe the convergence of ideas and personalities in favour of projects of political autonomy and the consolidation of a new political culture, a new social discourse concerning the meaning of political autonomy.

PALABRAS CLAVE
GAKO-HITZAK
KEY WORDS

País Vasco, Catalunya, autonomía, cultura política, vasco-catalanismo

Euskal Herria, Catalunya, autonomia, kultura politikoa, eusko-katalanismoa

The Basque Country, Catalonia, autonomy, political culture, Basque-Catalan cooperation.

Henrike Knörren omenezko liburu honetan, pertsonaiaren gogozko Hizkuntza eta kulturak aintzat izanik, badirudi halabeharrez, Euskal Herria eta Catalunya hartu behar ditugula abiapuntutzat. Henrike Knorrek, bizitza akademikoan eta zientifikoan, bi nazioetako egunerokotasunak bizi eta landu zituen. Nolabait naziotasun bikoitza, nortasun adierazle bihurtu zuen. Bi nazioetako egunkariak irakurtzen zituen. Eta horrela XXI garren mendeko errealitate berri baten adierazle genuen.

Baina bere izatezko nortasun horrek izan zituen aurrekariak. Eta honako honetan, Euskal Herria-Catalunyak, kulturgintzan eta politikagintzan izan zituzten kidetasun, elkartasun eta baterakotasunak gogoratuko ditugu. Gasteizen argitaratzen zuen *Landazuri* aldizkari-rako artikulua eskatu zidan. Eta horra hemen, zor nion artikulua, bere pertsonaren gorazarre gisa. Pertsonaia bera da, konplexutasun bikoitzean, gure diskurtsoaren argudio nagusia.

Euskal Herria eta Catalunyarren arteko harremanak eta loturak, azken urteotan ikerketa lerro bihurtu dugu. Duela lau urte, Euskadi-Catalunya mintegia Jaume Sobreques eta biok sortu genuen, azken bi edo hiru mendeetako dinamika historikoak aztertzeke. Honezkerok hiru mintegi egin ditugu, liburu bi argitaratu eta laugarren mintegia abian da.

1808tik 1876 bitartean, lege eta erakundetze esparruan, Espainietako monarkia, inperio izatetik, Estatu-nazio uniforme eta zentralizatzailea egin zuen igarobide malkartsua. Espainiak, penintsula, Ameriketa eta Pazifiko ozeanoan barreiatuak zeuden. Iraultza liberala eta kontrairaultzaren aldekoek, aurrez aurre borrokatu zuten harik eta lehen gerra karlista garaian liberalismoak erabateko garaipena hartu arte. (1833-1840), Euskal Herrian negoziazio politiko garrantzitsua gertatu ondoren. Enfrentamendu giroan, Catalunyan eta Euskal Herrian, kontrairaultzaileek indarra hartu zuten eta 1823an, errege-zale euskaldunak, konstituzio liberalen aurkakoak, (*Agur bada betico/liberal arruac/ agur lairon ta dama/ agonijacuak/ Cadiztik urte eta/ viurtu bertara/ zube azur ustelok/an obitutera*) agian Juan Jose Moguelen eskuko bertso bide direnetan, katalanak kideztat hartzen zituzten.

*Catalan ta Naparrac
Baita Arabarrac
Dituguz zorijonez
Beti geure tarrac.
Beste provincijetan
Gure bando asco,
Egunik egunera
Dozuz icusico*

**LEGE ZAHARRAREN
KINKA ALDI LARRIA**

Erregezaleek, Espainia herri, “gorpu” eta talde desberdinen arteko erresuma erakunde legez irudikatzen zuten. Erregearen agintea zen nagusia eta Euskal Herrian, aginte hori, herrialdeetako Batzar Nagusi eta Nafarroako erresumarekin partekatu beharra zuen. Hau da, foru agintearen bidez erregearena bideratzen zen.

Karlismoa herritarren artean bai Catalunyan eta Euskal Herrian errotu egin zen. Karlista katalan eta euskaldunak kidesasun harremanak landu zituzten.

Baina, aldi berean, liberalen artean eta bi herrietako errepublikanoen artean ere elkartasunak sortu ziren. Liberalismo kontserbadorearen esparruan, 1860ko hamarkadan jadanik, Mañe i Flaquer Euskal Herrian barrena ibili zen. F. Pi i Margall, 1869an errepublikanoen *laurac bat* izeneko batasuna bultzatu zuen. Lider errepublikanoak emaztea, Arsuaga anderea, Bergarako zuen bertan egon zelarik 1856an. Gasteizen buruzagi errepublikanoak ezagunak ziren. Kultur giro eraginkorra bultzatu zuten eta R. Becerro de Bengoa Arabako errepublikanoen idazkari bihurtu zen. Gasteizen Unibertsitate librea sortu zen M.B. Moraza errektorea zelarik. Baina errepublikanismoak, hirigunetan ezik, ez zuen arrakastarik izan Euskal Herrian, buruzagi trebeak eta jakintsuak izan arren.

Ondoren, 1876ko maiatzetik uztailean bitartean, Espainiako Parlamentuan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foruen bidezko erakundetzea aldatzeko legea eztabaidatu zen. Berez, lege berriaren bidez, foru konstituzioaren erroko erakundetze politiko eta juridikoaren ezabatzea iristeko atea zabaltzen zen, eta horrela gertatu ere. Eta ondorioz, Espainiarako konstituzio politiko bakarraren araberrako erakundetzea ezarri zen indarrean. Bi konstituzioen arteko kidesasun apurta eta konstituzio bakarrarena jartzen zen iturburu juridiko eta politikoa gisa.

Eztabaida giroan, liberal kontserbadoreen arteko kidesasun sortu zen: Mañe i Flaquerrek bertatik bertara ezagutzen zituen foruen bidezko erakundetzearen onurak. Bere asmoa, Espainiako Estatuaren deszentralizazioaren ildoan jartzea zen.

Madriren foruen aurkako kanpaina mediatikoa hedatu eta ondo antolatua gertatu zen. Behin eta berriro gerra zibilaren iturria, (1872-1876) foruzalatasunaren bidezko autogobernuan zela adierazten zuten. Beraz galtzaileak karlistak izanik, foruak ezabatu behar ziren. Propagandan ez zen aintzat hartzen, Euskal Herrian, agintaritzaren liberala, foruen bidezko erakundetzearen aldekoa izan zela. Baina foruen aurkako giro horretan, salbuespen bakarra Bartzelonan gertatu zen. J. Mañe i Flaquer, Bartzelonako egunkariaren zuzendaria zen eta Canovasen joera kontserbadorearen alde egon arren, Euskal Herriko Foruen bidezko erakundetzea, adibidetzat jarri zuen eta aldeko artikulatuak idatzi zituen.

Bestalde, legearen eztabaida izan zenean, 84 nortasun handiko pertsonak, Batzelonan, Araba Bizkaia Gipuzkoa eta Nafarroako foruen aldeko manifestua sinatu zuten.

Azken batean, 1880an, Espainian joera berriko naziotasun bakarretako nazio politikoaren joera nagusitu zen erabat. Estatua eta nazioa bat eta hiritar molde bakarra, hizkuntzaz eta kulturaz sortzeko egitasmo trinkoa, indarrean jarri zen.

Madrillen prentsak foruen aurka jotzen zuenez gero foruzaleek, liberal eta karlista jatorrizkoak izan, euskal erakunde foralaren laguntzaz Madrillen *La Paz*. (1876-1878) egunkaria sortu zuten, zuzendaria M.Loredo zelarik, ondoko adierazpena eginez argitaratzen hasi zen:

“Este periódico no tiene color político, ni pertenece a partido alguno. Su exclusiva misión es defender los Fueros de las Provincias Vascongadas y Navarra, limitándose en cuanto a lo demás, a dar noticia imparcial de los sucesos políticos y a la publicación de noticias de todas clases. Está redactado y colaborado, por escritores vasconavarros, excepción hecha del ilustrado publicista catalán Sr. Mañe y Flaquer que tan billante defensa ha hecho de las instituciones vascongadas”.

Euskal Herriko egunkarietako foruei buruzko artikulua argitaratzea debekaturik zuten. Horrez gainera, eskubide konstituzionalen bermeak, bertan behera zeuden eta armada hiri nagusietan tente.

1876ko legean oinarrituz, 1877an A. Canovasek, foruen bidezko agente politikoa eta juridikoa, desegin zituen eta diputazio probintzialak aginduz ezarri. Liberal foruzaleak gerraren irabazle izan arren foruzaletasuna garatzeko bide gabe geratu ziren. Bestalde, errepublikanoak sistema politiko berriaren bazterturik gertatu ziren. Eta erro errepublikanoatik Katalunian katalanismo politikoaren aitzindaria Valenti Almirall izan zen. Federal-errepublikanoa izanik “Estatu katalanaren” alde eginez, katalanismo politikoaren sortzailea du. 1882an lehen kongresu katalanista izan zen eta ondoren ekainaren 17an *Centre Catalá* sortu zuten Helburua hauxe: *“Catalunya y avant; avuy demà y sempre”*. F. Pi i Margall zen beste buruzagi errepublikanoa, Espainian federalismo simetrikoaren aldekoa izanik, nazio kontzeptua ikuspegi arrazionalistaz burutu zuen. Elkar bizitzeko borondatean zegoen nazioaren oinarria eta gai honetan E. Renan eta beste europar intelektualak baino zehatzago idatzi zuen. Canovasantzat alde, nazioak azken batean Jainkoak sorturikoak ziren. Beraz aldea nabarmena zen. F. Pi i Margall liburu garrantzitsuenean *Las nacionalidades* 1876an honelako ikuspegi adierazi zuen:

“En España la cuestión de los vascos es mucho más grave que en Francia (...)” Vencidos, se trata actualmente no de arrancarles sus fueros, pero sí de quitarles la exención del servicio militar y de los tributos. ¿Serán porque se los quiten más españoles? ¿Participarán más

KULTURGINTZAREN ARLOKO EUSKO- KATALANISMOA: 1876-1901

de nuestras ideas y de nuestros sentimientos? ¿ No será resultado natural de la diversidad de razas ese antagonismo que entre ellos y nosotros existe? A poco que se combinen aquí los diversos criterios para la teoría de las nacionalidades, tengo para mí que se habría de estar por la independencia de los vascos. ¿La consentirá España?"

Centre Catalá antolatu ondoren, V. Almirall, 1882ko abuztuan, Euskal Herrian barrena ibili zen. Nafarroan, "euskaroak" zerbait behintzat baziren politikagintzan eta ez kultur arloan soilik. Foruzale politikoak ziren eta *Lauburu* izeneko egunkarian 1882ko martxoaren 8an Catalunyaren gorazarrea argitaratu zuten. Beraien ustez, Catalunyan gihartzen ari zen katalanismoa foruzaletasunaren ildoko euskaltasunaren parekoa zen. Arturo Campion euskalerritar eta katalanen arteko loturen alde azaldu zen jadanik. Euskaroak V. Almirallen alde azaldu ziren eta ez horrenbeste F. Pi errepublikanoaren federalismoaren kide. Irlanda, Catalunya eta Eskozia ziren euskaroen erreferentziak. Eta giro horretan 1885ean *Liga Vasco-Navarra-Catalana* sortzeko asmoa proposatu zuten. Baina 1886an jadanik *Lauburu* egunkaria desagertu egin zen. Bilbon *La union vasco-navarra* egunkari foruzalea argitaratzen zen aldi berean. Luzaro iraun zuen. Albiste ugari agiri dira Catalunyari buruz, elkartasuneko kidesun giroan. Catalunyako Lore Jokoetan F.Sagarminaga, A. Campion H. Oloriz partaide izan ziren.

1889an F. Sagarminagak Lore jokoen giroko brindis batean adierazi zuen: "*Cuando los bascongados vitorean los fueros y libertades de su patria vitorean los fueros y las libertades de Cataluña*". Manuel Murguia Galiziako abertzaletasunaren aldekoa ere Bartzelonan zegoene horretan.

Espainiar ikuspegiaren aldekoak ziren. Baina beraien Espainia, anitza, herriz konposatua eta beraz Espainia nazio konposatu gisa ulertzen zuten. Espainian hitz egiten ziren hizkuntzak landu eta gorde behar ziren, aberastasunaren iturritzat hartzen baitzituzten.

1893an Reusen bildu zen bigarren "*Asamblea general de delegados de la union catalana*" eta honako hau erabaki zuten: "*iniciar una reunión de caracter interregional de representantes de Galicia, Navarra y Provincias Vascongadas a fin de obtener el planteamiento del regionalismo por medio de una acción comun*"

Urte adierazgarria da Gamazoren aurka, 1893ko ekainean egindako manifestazioetan Iruñean foruzaletasun politikoa indartu egin zelako, abertzaletasun berritzailearen ekimenak eta ekintzak adieraziz. Abuztuan Gernikan San Roke egunean Espainiar bandera erre eta Bilbon eta Gernikan S. Aranak idatzi zuenentz, lehen aldiz entzun zirela "*viva Euskeria independiente*" *Muera España*". Catalunyako Lliga de Catalunyako presidentea Alsina jauna Gernikan egon zen eta bertatik ikaraturik joan zen, *Muera España* oihuak zinez kezkatzen zuelako. "*La union vasco-navarra*" egunkarian, aldiz, Gernikan San

Roke eguneko liskarrak eta oihuak foruzaletasunaren alde zirelakoan zeuden, bestelako ikuspegiak baztertzuz.

Hurrengo urtean, S. Aranak “*errores catalanistas*” izeneko artikulua *Bizkaitarra* aldizkarian argitaratu zuen. “Euskalerrriako” edo euskaroen joera politikoak kritikatzeko zituen eta foruzaletasuna “separatismoaren” ildoan bideratu behar zela aldarrikatu zuen. S. Arana Bartzelonan bizi izan zen eta bertako katalanismoaren ildoan ezagutzeko bideak izango zituen. Aristides Artiñano buruzagi karlista izandakoa ere, desterraturik Bartzelonan bizi zen bera ikasle zela. Balentin Berriotxoaren hezurak Bartzelonako portura iritsi zirenean elkarrekin egon ziren. A. Artiñanok, Bartzelonan *El Señorío de Bizcaya, histórico y foral* 1885ean izeneko liburua argitaratu zuen. Sarreran honelako adierazpena idatzi zuen:

“oyen exclamar a los adversarios de instituciones peculiares ahí tenéis un libro que a pretexto de recordar lo que fue Bizcaya en tiempos pasados, tiende a fomentar la idea separatista que empieza a germinar en las regiones que fueron forales... no queremos quedar... bajo la acusación del horrible crimen de atentar a la unidad de la Patria”.

Horra bada, bazirudien erretzen hasi zela euskal abertzaletasun mota berria.

Sabino Aranaren ustez, 1890eko hamarkadan, *bizkaitarren* politika “euskalerrriakoen” edo katalanisten politikatik bereizi behar zela aldarrikatzeko zuen. 1898an aldiz, hauteskundeetara aurkeztu zenean eta Bizkaiko diputatu probintziala hautatua gertatu, euskalerrriakoen bat eginda irabazi zuen. Eta 1901ean, katalanisten ildoko alderdia sortzeko premia ikusi zuen. Jeltzaleak Bartzelonara joan ziren, alderdi katalanistaren erakundetzea ezagutzeko eta ideia politikoetan elkar biderako aukerak aztertzen. (Antxustegi, 2007)

Beraz XIX mendeko azken bi hamarkadetan, liberal erroko foruzaletasun kultural eta politikoaren aldekoak, katalanismo politikoaren ildoan ari ziren. Euskalerrriakoen baitan hala ere, erlijio katolikoaren oinarria nabarmenagoa zen.

Aldi berria hasi zen, 1906an, *Catalunya Solidaritat Catalana* alderdiak hauteskundeetan izugarritzko arrakasta lortu zuen. Eta hurrengo urtean, 1907an Bartzelonako Diputazioko presidentea E. Prat de la Riba izan zen. Gipuzkoan, autonomismoaren aldeko bandera harturik, Liga Foral Autonomista bilgune politikoa antolatu zen, ezker eskuinekoen artean, autonomia politikoa ardatz harturik. Eta 1906an Catalunya eta Gipuzkoako buruak, ekintza bateratuak burutu zituzten: Barcelona, Sitges, Tolosa eta Gernikan burutu ziren bilkurak. Ekintza bateratu hauek gogoratzeko, Fortuny liburu ederra idatzi zuen: *Els catalans a Basconia. Crónica de un viatge*. Katalanismo politiko berriak, Gernikako arbolaren ondoan argazkia egin zuen. Katalanista politikoentzat Gernikako arbola aginte politi-

1906: KATALANISMO POLITIKOAREN ARRAKASTA

koaren ikurra zen. Beraz, Euskal Herria eta Kataluniaren artean nola-baiteko lotura zubi politikoak erretzen hasi ziren, diferentzia nabarmenak ere tarteko zirela.

Bilbon goi mailako injineru industrialen eskolan Pompeu Fabra (1868-1948) hizkuntzalari handia, irakasle kontratua zen, kimika arloko gaietan aditua ere baitzen. Katalan hizkuntzaren normalizazio ortografikorako arauak egin zituen (1913). Bilbon zela, 1906an, Lluís Duran I Ventosa politikari adiskideare erantzunez zera azaldu zion:

“Bilbao es una ciutat de llengua castellana; San Sebastian-me dieune-s’está castellanisant rapidament. Els bilbains, a casa llur, volen managars-s’ho tot ells sols. Fora ingerencies de gent estrany ! els maquetos que no a fiquin alli aoun no’ls demanen ! Vet-aquí l llur regionalisme...! enamorats de Bilbao, satisfets hiperbolicament del seu engrandiment, en el design de fer-se los superiors s’arrapen adhuc a la llengua: l’euskara es antiquissim, no ve de capt altra llengua, es més llengua que l castellá que al cap de vall no es més que un dialecte llatí (i aquí está la cosa: l’euskara per damunt dels castellá..!) però no le parlen!. ni l’entenen!! Un dia he estat al Centro Vasco, vaig veure-hi retorls en Bascuense, no hi vaig sentir enraonar sinó en castellá. Molts que es deixen dir biscaitarres ignoren completament el Bascuense; es tant difícil! La seva gran dificultat(?): Una altra prova de superioritat. “ (Bilbao, 1906.IV.15).

Katalanismo politikoaren helburu nagusienetarikoa, katalan hizkuntza eta kulturaren garapena zen. Euskal abertzaletasunean, euskaltzaletasuna aintzat du baina helburu nagusia agintea lortzea eta kudeatzea zuen.

1917-1919: EUSKO-KATALANISMO POLITIKOAREN ALDIA: MANKOMUNITATEA, FORUZALETASUNAK ETA AUTONOMI ESTATUTUAK (1919)

1914an Catalunya Mankomunitatea antolatu zen, presidentea E. Prat de la Riba zela (1870-1917). Bartzelona oinarri zuela, administrazio publikoaren tokian tokiko antolaketa bultzatu zuen. Aldi berean katalan hizkuntzaren eta katalan kulturaren garapenerako erakundeak sortu: Adibidez, Institut d’Estudis Catalans. Erakunde akademiko hau, ondoren, Eusko Ikaskuntza sortzeko eredugarria izan zen. 1916an Lausannen, (Suitza) *Conférence des Nationalités* delakoan euskal delegazioko buru ziren I.Lopez de Mendizabal, J.Izagirre eta L.Elizalde jeltzaleek parte hartu zuten eta doktrinaren arloan txosten argigarria azaldu zuten. Bertan katalanisten berri zuzena eta berria hartu zuten. Oraingoan, jeltzaleak ziren autonomiaren bandera hartuz, katalanekin batera, euskal naziotasuna nazioartean lantzen hasi zirenak. Autonomia berriak aldiz, naziotasun politikoa ere aldarrikatzen zuen. Naziotasuna izateko eta garatzeko, autonomia politikoa bide zen.

Eusko Alderdi Jeltzaleak, 1916an, autonomiaren lorpena, bere egitarau politikoan erabaki zuen. Eta giro horretan, 1917ko urtarrilean, F. Cambó, buruzagi katalanista, Bilbora etorri zenean, Bilboko merkata-

rien ganbararen gonbitez, hurrengo egunean, bereziki, autonomia politikoaren aldeko hitzaldi berritzailea egin zuen. Arrakasta sonatu lortu zuen. Bizkaiko Diputaziorako hauteskundeetarako atarian zeuden. Eta giro horretan, Sotaren gidaritzapeko abertzaletasunak laguntza eta ondoren berebiziko arrakasta lortu zuen. Lehenengo aldiz, 1917an, Bizkaiko Diputazioan R. Sota Aburto, jeltzale bat, presidente kargua hartzen zuen.

Adierazgarriak dira, R. Sotak ezarri zituen helburuak presidente kargua hartzeko unean 1917ko maiatzaren hasieran: Katolikotasunaren defentsa, euskal nortasunaren adierazpena eta lau diputazioen arteko mankomunitatea. Horrez gainera, euskararen ofizialtasuna eta unibertsitate barrutia. Eta berehala, presidente berria eta beste diputatu batzuk Katalunyarabi abiatu ziren maiatzaren 28an. Pobleteko monastegian katalanisten ekitaldian parte hartu zuten. Ondoren Barcelonan eta Bilbon autonomia lortzeko bide berriak urratzen hasi ziren.

1917ko uztailaren 16an, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako diputatu probintzialak Arabako Diputazioan bilkura egin zuten. Nafarroako Diputazioko ordezkariak begirale gisa egon ziren. Bertan, berriz ere Foru agintearen berreskurapena eskatu zuten aho batez. Baina Espainiako gobernuak ez zuen horrelako eskakizunik onartzen. Baina Gasteizeko bilkuran, berrikuntza egin zen: Foru berreskurapena ezinezkoa bazen, gutxienez, indarrean zegoen autonomia fiskal eta administratiboaren sakontzea, hau da, autonomia politikoa eskatzen zuten. Bilkuran, Bizkaiko Diputazioko ordezkariak autonomia definitzeko egitaraua aurkeztu zuten. Ondoren, autonomiaren eskuduntzak, aldarrikapen nagusian zehaztasunez aipatu zituzten. Horretarako, Estatuarenak zeintzuk izango ziren zehaztu zituzten: nazioarteko harremanak, armada, pisuak eta neurriak, aduanak, moneta, posta. Gainerako aginte publiko guztiaren kudeaketa Diputazioen esku erabateko autonomian bermaturik gelditu behar zen.

Euskal nortasun politiko eta kulturalaren errezilentziarako definizio zehatza izan zen. Eskakizunaren eskubideak oinarri bi zituen: Bat iraganeko foru eskubideak eta bestea autogobernua izateko borondate eta nahian.

Bartzelona, urte bereko uztailan bertan Espainiako parlamentari errepublikanoek bilkura egin zuten. Eta begi onez agurtu zuten autonomiaren aldeko eskakizuna. Eta Bartzelonan bertan, Mankomunitateak autonomia politikoa eskatzeko mugimendua hasi zuen. Autonomia estatutuak idatzi zuten.

Horra bada, autonomiaren aldeko eskakizuna lortzeko, katalanen eskakizunaren ildoan kokatu zen. Eta Euskal Herrian ere, autonomia estatutuak hasi ziren idazten.

Euskal Diputazioek 1917an Gasteizen onartu zuten programa bateratuan, jauzi politikoa, gertatu zen: Foru aginte osoaren itzultzea eskatuz, autonomia murriztagoa baina aginte politikoz beteak eskat-

zera, igaro ziren. Euskal jatorriko aginte publiko administratiboaren sorburu den aginte politikoa nahi zuten.

XX mende hasieran tradizionalismo katolikoko kideak foruzaletasunaren diskurtsoari loturik agiri ziren. Bestalde, errepublikano federalen baitan ere indartsu agiri zen. Eta tartean, abertzaletasun jeltzalea hirigune modernizatuetan bereziki udal hauteskundeetan sendotzen hasi zen. Baina, autonomia kontzeptua eta autonomismoa zehaztu zenean, hitzak eta kategoria politiko honek, hainbat politikarien baitan, ezinegona sortzen zuen. Ez baita ahaztu behar, urte batzuk lehenago gertatu zena Espainian: Cubak autonomia aldarrikatu zuen eta ondoren ildo beretik independentzia lortu. F. Cambo, Espainiar Parlamentuan, 1916an arazo katalanari buruz ari zela, autonomia politikoa, esparru nagusietan erabatekoa izan behar zuela, adierazi zuen, hots, burujabetza osoa azaldu behar zuela.

Horrez gainera, 1918ko urtarrilean Thomas Woodrow Wilson, ipar Ameriketako Estatu Batuen presidentea herrien autogobernu eta autoerabakikuntzaren printzipioa aldarrikatu zuen, nazioen arteko bake iturri izango zelakoan, bereziki Europan. Eta teoria hau aintzat harturik, lehen mundu gerratearen bake hitzarmena sinatu zen Versaillesen eta Europan nazio kultural ziren ugari, nazio politiko bihurtu ziren.

Beraz, ez da harritzekoa, nazionalista espainiarren baitan, edozein autonomiak sortarazten zuen kezka eta ezinegona. Azken batean, autonomia, balizko nazio berriaren onespenerako aurreneko urratsa izan zitekeen. Bilboko *Hermes* aldizkarian, T. Wilsonen ikuspegiak argitaratu eta zabaldu ziren. José Villalongak idatzi zuen artikulua *“La nación vasca y los principios de Wilson”* zera adierazten zuen :

“que el pueblo vasco puede hoy acogerse a los nuevos principios proclamados por el presidente Wilson” (...) *“la fórmula de arreglo ha de permitirnos recobrar nuestra soberanía, para que con ella podamos ocupar el puesto que nos corresponde en la Sociedad de las Naciones”*

Horrez gainera, lehendabizikoz, R. Belausteguigoitiak Eusko Gobernu nazionala sortzeko egitasmoa egin zuen. Ikuspegi honek, Foruen ildoko ikuspegia aldatu egiten zuen. Euskal Herria nazio gisa aurreikusten zuen.

Diputazioen baitan, 1918an lehen autonomi Estatutuak idatzi ziren. Bizkaiko Diputazioan landu zen 1918ko autonomia Estatutuaren proiektuak, (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako) Espainiaren baitan antolaturiko euskal Estatu baten irudipena zuen: Parlamentua eta Senatua aurreikusten zituen eta berrikuntza handiak ziren ohizko Batzar nagusien erakundetze foralarekin parekatuz gero. Gipuzkoan ere beste bat idatzi zen, baina foruen bidezko Batzar Nagusien ildoari jarraituz.

Espainiako presidentek, Romanonesen kondeak, parlamentuz kanpoko batzordeak antolatu zituen, udal eta herrialdeen autonomia eremuak aztertzeko. José Orueta, liberala, Pedro Chalbaud jeltzalea eta Manuel Senante integrista katolikoak, euskal azpionentziaren kide izan ziren eta euskal autonomia estatutua, foruen ildoan finkatuz, idatzi zuten. (1919ko urtarrilak 9) 3.3. Artikuluak hau adierazten zuen : *La administración central no tendrá intervención de ninguna clase en el ejercicio de las funciones autonómicas que se mencionan en este artículo*. “Hau da, autonomia, soberaniaren ildoan jartzen zuen. Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioak egitasmoaren alde jarri ziren. Baina Espainiar Parlamentuan, batzordean jadanik, arbuia egin zuten.

Euskal Herrian, eskuindar monarkikoak kontzertu ekonomikoaren jarraipena aldarrikatzen zuten eta autonomia politikoaren aurka zeuden. Horregatik, Arabako diputazioak 1919an autonomi Estatutuaren aurka egiteko zera adierazi zuen: *“Iguarlan con los Catalanes es empezar presentándonos como si estuviésemos a su nivel”*. Foruak eskatzen zituzten eta ez autonomia.

Beraz, hemen erakutsi izan dugun bezala, hasierako abiadatik jadanik, katalanismo politikoa eta euskaltzaletasun politikoak elkarren arteko begiradak, harremanak eta loturak landu zituzten. 1919an Espainiako Parlamentuan eusko-katalanismoak autonomia estatutuen proiektuen eztabaida eragin zuen.

Eusko.katalanismoaz, Gregorio Balparda bilbotar politikaria *Errores del nacionalismo vasco* (1918) idatzi zuen, mugimendu politiko egituratua zelakoan. Liburuko atal baten izenburua aski adierazgarria du: *“Del bizcainismo fenicio al catalanista y judaico”*. Bere helburua autonomia politikoaren kontra eta Espainiako batasunaren alde egitea zen. Beraz, kategoria berria asmatu zuen, Espainiaren batasunaren etsaia horrela identifikatuz. Katalanismoa jadanik ez zuen onesten onik espainiar monarkiko eta eskuindarren baitan. G. Balpardak, delako eusko-katalanismoaren indarra aitziatzat harturik, espainolismo monarkikoa aldarrikatzeko, 1919an, *Liga de Accion Monarquica* partiduaren sortzailetakoa izan zen. Aurrerantzean espainiar nazionalismoaren defendatzaile ziren monarkikoak bildu egin ziren eta delako Liga berria, ondoko diktaduretako (Primo de Rivera eta Franco) agintari, buruzagi eta zerbitzari publiko askoren mintegia bihurtu zen.

Beraz, eusko-katalanismo delakoaren programa, nazionalismo espainolaren alternatiba gisa bihurtu zen. G. Balpardak honela idatzi zuen:

“He aquí, pues, que, al fin el bizcainismo ha llegado a concretarse en algo. Su base sentimental sigue siendo la misma, como queda dicho, de la sanrocada. Pero sabemos ya claramente por qué camino quieren llevar a las Provincias Vascongadas, aunque claro está que

ese Mensaje es para nuestros catalanoides vascos, un programa de mínimo que tendría ulteriores desarrollos”

Baina, benetakoa ote zen delako “eusko-katalanismoa” edo G. Balpardaren asmakizun edo aitzaki hutsa nazionalismo espainiarraren aldeko mugimendua bideratzeko? Erantzunak azterketa sakonagoren premia du.

Beranduago, 1923an, Galeusca sortu zen. Baina hala ere ez zuen izan eragin handirik. Eusko-katalanismoak, gerra zibilaren garaian berriz ere indarra hartu zuen. Euskadi eta Catalunyaoko presidenteen argazkia, (1939) Lluís Companys eta Jose Antonio Agirre, atzerri bidean, XX mendeko lehen hamarkadetakako eusko-katalanismo politikoaren irudia dugu. Galtzaile ziren gerran, baina mende bukaeran, beraien asmoetariko batzuk behintzat, irabazle atera ziren.

BEHIN BEHINEKO AIPAMENAK

Bizkaiko Foru Artxiboa-Archivo Foral de Bizkaia. Archivo Administrativo. Régimen económico-administrativo, n°2654/ 103. , 2, 109.

Arabako Foru Artxiboa-Archivo del territorio histórico de Alava. DH 5949

Sancho el Sabio Fundazioa. Liburutegia. Diputación provincial de Alava, *Antecedentes sobre el problema autonómico en Alava publicados con ocasión de la “Consulta al País” hecha por la Diputación de Alava*. Vitoria, imprenta provincial de Alava, 1919.

Seminari Catalunya-Euskadi. La institucionalització política: de les Constitucions històriques als Estatuts d’Autonomia (1808-2005). (2007) Barcelona, pp 19-42

II Seminari Euskadi-Catalunya. AGIRREAZKUENAGA J.& SOBREQUES J.,(ed.) (2007) *El Gobierno vasco y la Generalitat de Catalunya: Del exilio a la formación de los parlamentos (1936-1980)*. Oñati,

AGIRREAZKUENAGA J. (2000) *Hermes. Hiria, gizona, aldizkaria- Hermes . La ciudad, el hombre y la revista*. Bilbao, Ayto de Bilbao,

AGIRREAZKUENAGA J.(1995) *La articulación político institucional de Vasconia: Actas de las Conferencias entre los representantes de Alava, Bizkaia, Gipuzkoa y eventualmente Navarra*. Bilbao, Diputaciones de Alava, Bizkaia, Gipuzkoa, , 1995. 2 vol.

ANTXUSTEGI E. (2007) *El debate nacionalista Sabino Arana y sus herederos*. Murcia,

BALPARDA G. (1918.) *Errores del nacionalismo vasco. Colección de artículos y conferencias*. Madrid,

BELAUSTEGUIGOITIA R. (1918) *Las bases de un Gobierno nacional vasco*. Bilbao,

CASTELLS L. (1980) *Fueros y conciertos económicos. La Liga Foral autonomista de Guipúzcoa(1904.1906)*. San Sebastián,

ESTORNES I. (1990) *La construcción de una nacionalidad vasca. El autonomismo de Eusko Ikaskuntza(1918-1931)*. Donostia,

FORTUNY C. (1906). *Els catalans á Basconia. Crónica de un viatge*. Barcelona,

MAÑE I FLAQUER J. (1876) *La Paz y los Fueros*. Barcelona

MAÑE I FLAQUER J. (1878-80) *El Oasis. Viaje al país de los fueros*. Barcelona

NIEVA J.L. *La idea euskara de Navarra. 1864-1902*. Bilbao, 1999

ORUETA J., (1934) *Fueros y Autonomía. Proceso del Estatuto Vasco*. San Sebastián,

PABLO S. (1991) *Los problemas de la autonomía vasca en el siglo XX. La actitud alavesa 1917-1979*. Oñati,

PI I MARGALL Francesc, (1986). *Las nacionalidades, 1877*. Edición de Madrid 1986, Centro de Estudios Constitucionales, , p. 62-63

RIQUER B. (2001)“El primer nacionalisme basc segons Pompeu Fabra” *L’Avenç*, Barcelona, , nº 258, p.51

RUBIO C. “El concepto y la idea de autonomía en el siglo XIX (Cataluña y País Vasco): Una aproximación” in *Spagna Contemporanea.*, 2000 9 (17), pp.7-27.

ZABALA F. (1976) *De los Fueros a los Estatutos. Los conciertos económicos*. San Sebastián,